

Biolentzia eta fantasia: droneen kasua

Joseba Zulaika

Basque Studies Center, University of Nevada, Reno

zulaika@unr.edu

Hitz gakoak: kontraterrorismoa, dronak, fantasia, estetika, profezia auto-sortzailea.

Laburpena: Kontraterrorismo iparamerikarraren azken tresna dronak dira. Tresna berri hauek zein neurritan kontraterrorismoaren lojika auto-sortzailean kokatzen diren aztertzen da idatzi honetan. Fantasiaren zeregina aipatzen da batik-bat. Fantasia errealearen alderdi oinarrizko bezala ikusten da, ez errealtateari kontrajartzen zaion fikziozko ez-gauza bat. Fantasia honek sekretismoarekin eta estetitzazioarekin dituen harremanak ere aztertzen dira, eta estetizazioak faszismoarekin. Nevadako Las Vegas ingurutik kudeatzen dira drona ugari, hau (Area 51) izanik fikzio zientziaren gune nagusi bat, honela fantasiak duen garrantzia azpimarratuz. Fantasiak desioarekin, beldurrekin eta denborarekin dituen harremanak jorratzen dira. Zer litzateke beraz “fantasia zeharkatzea” edo harago joatea (Lacan) politika internazionalari nagusitu zaion kontraterrorismoaren esparruan?

“Gure presidentea hiltzaile bihurtu da”, zioen idazle batek Barack Obamaz (Baker, 2012: 8). *New York Times*ek Washingtonen duen berriemaile nagusia ados dago: urrutiko kontrolez gidatutako droneek eragiten dituzten heriotzak, irailaren 11ko erasoetatik hamarkada batera, “funtsean erailketak [dira]” (Sanger, 2012: 253). Obamaren administrazioko funtzionario baten iritziz, “zentzu praktikoan zaila da hori [droneak] hilketa gidatuetatik bereiztea” (2012: 255). Izan ere, Jo Beckerrek eta Scott Shanek osatutako erreportaje batek zioenez, liberal ospearekin aukeratua izan zen gizona behin eta berriro ahalegindu da, txartel makabro batean zegoen informazioaren arabera, terrorista omen direnen “hilketa zerrenda” (2012: A1) luza-razten. Ehunka dira jadanik horrela hildakoak; gehienek izenak ere ez dira ezagutzen.

Zer daki presidentek txartel horietatik terrorista omen diren horietaz? Erreportaje baten arabera, 2011ko ekainera arte hildako 3.000 ingurutik, CIAk 125en izenak zekizkien, eta horietatik 35 ziren “balio handiko helburuak” (Ahmad, 2011). Ez dirudi kopuru horiek okerrak direnik kontuan hartzen bada zer-nolako informazioan oinarriturik eraman zituzten zenbait terrorista susmagarri Guantánamora: 779 susmagarritik dagoeneko 600 aske utzi dituzte; eta oraindik barruan dauden 169tik erdia inguru aske uzteko garbi daude baina ez dago onartuko

Ankulegi 17, 2013, 41-54

Fecha de recepción: 30-III-2013 / Fecha de aceptación: 11-XI-2013

ISSN: 1138-347-X © Ankulegi, 2013

dituen naziorik. Obamaren administrazioak ekarri duen aldaketarik handiena hauxe da: lehen, pertsona susmagarriak atzeman eta Guantanamora eramaten ziren; orain, droneen bidez eliminatu egiten dira.

Londresen du egoitza sarritan aipatzen den kazetari ikertzaile bulego batek (Bureau of Investigative Journalism), eta horren arabera 2.972 eta 4.520 pertsona bitartean izan dira hilak droneen bidez (2012ko irailera arte). Horietatik 177 haurrak ziren eta 545 eta 1001 artean zibilak, ustez. Mendebaldeko zenbait iturriren arabera, hildakoen % 85 militanteak ziren. Oso bestelako zenbakiak eman zituen *Dawn* egunkari pakistandarrak: 2009an droneen bidez hildako 708 pertsonetatik, militante ezagunak 5 baino ez zirela kalkulatu zuen; Pakistaneko ingelesezko beste egunkari baten kalkuluetan (*The News*), 2006ko urtarriletik 2007ko apirilera bitartean droneek hil zituzten 701 pertsonetatik, 14 ziren militanteak (Ahmad, 2011). David Kilcullen estatubatuar guru kontraterroristatzat jotakoaren arabera, 2009ra arte 50 izan ziren (% 98) militante bakoitzeko hildako zibilak.

Baina dirudienez Obama hain da ziur izen ezagunik ere ez duten horiek terroristak direla edo izan daitezkeela, horien erailketa justifikatua baitago. Obamaren terrorismoaren aurkako buru John Brennanek, CIAko zuzendari izendatu berriak, 2011ko abuztuan inolako lotsarik gabe esan zuen azken urte hartan droneek hildako guztien artean ez zegoela zibil bakar bat ere (2011. urte horretantxe, Conflict Monitoring Centeren arabera –Pakistaneko eta atzerriko berriak biltzen dituen erakunde pribatu bat– 609 hildakotik 4 bakarrik ziren Al Kaedako militanteak). Obamak berak zera zioen 2012ko otsailean: “droneek ez dute eragin hildako zibil mordorik. (Erasoak) oro har,

doitasun handiz egin dira Al Kaedaren eta haren jarraitzaileen aurka” (*New York Times*, otsailak 6, 2012: A6).

Nola liteke droneen erasoen inguruko zenbakiak hain desberdinak izatea? Erantzunetako bat honako hau da: hildako ugari “eraso-soslai”-en ondorio dira; eta eraso soslaiok jendearen portaera erduetan oinarritzen dira. “Soslai” nozioak zera esan nahi du: CIAk bere helburuak aukeratzen dituela droneen kamera zaintzaileek (zerutik, hamar mila oin goragotik begira) nabaritzen dituzten “portaera eredu” baten ezaugarrien arabera. Adibidez, Pakistanen gizon heldu gehienek eskopetak eramaten dituzte: “portaera eredu” hori nahikoa da droneen helburu bihurtzeko. Horri erantsi behar zaio azken urteotan antiamerikanismoa inoiz baino gehiago areagotu dela droneak direla medio, % 90 izateraino. Baina eskopetak alde batera utzita ere, CIAko kide batek esan zuen bezala, “seguru dagoen bizar luzedun gizonik ez da Asiako hego-mendebaldean” (Ahmad, 2011). Brennanek ez badu zibilik ikusten milaka hildakoren artean eta Obamarentzat oso bakanak badira, metodo xume hau onartzeak ematen die arrazoa: “eraso lurraldeetan dabilen eta adin militarrean dagoen gizonezko oro gudarizat jo behar da”. (Becker eta Shane, 2012: A10). Hau da, funtsean terrorista zara terroristak dauden gunean bazaude. Hortik dator kontraterroristen “logika sinplea”: “gauza onik ezin da seguruenik espero ekintza terroristak dauden tokietan bizi diren pertsonengandik” (Becker eta Shane, 2012: A10). Inteligentzia zerbitzuetan diharduen orok ez du Brennanen ikuspegia onartzen (ez da zibilik hil), eta batek baino gehiagok aitortu du kopuru horiek “gezurra” direla eta “asoziaziozko errua” dagoela tartean. Pakistango “soslai” erasoak “terrorista mordoa hiltzen ari ziren,

CIAko analistek alde zuzenetik terroristarik ba ote zegoen ziur ez bazekiten ere" (Becker eta Shane, 2012: A12). Baina "pertsonek ezagutzen" eraso kasuetan ere, helburuaren nortasuna jakina zenean, Becker eta Shanen erreportajeak zehazten du nola Pakistango talibanen buru Baitullah Mehsud hil zuten "Estatu Batuentzat arrisku hurbila ez bazen ere" (Becker eta Shane, 2012: A11) eta emaztearen eta beste senide batzuen konpainian zegoela jakinda. 2009ko abenduaren 17an Yemenen izandako lehen droneen erasoan, helburuaz gain auzoko familia bi ere hil ziren, eta atzean utzitako zatikatze bonbek gero pertsona errugabe gehiago hil zituzten (haurren gorputz zatiak ikus daitezke YouTubeko zenbait bideotan).

Biktimen kopurua ezin zenbatzea, eta gudulariak edo zibilak ote diren ezin jakitea, errealitate tabu baten aurrean gauden seinale dira, zeinean gertakizun objektiboak ezin baitira egiaztatu. Zergatik da hain zaila zifra horiek egiaztatzea? Hasteko, Estatu Batuek droneen programaren existentzia bera ukatzen dute. Ondoren, CIAk ez die uzten mendebaldeko kazetariei droneek jaurtikitako misilek jo dituzten lekuak bisitatzen. Terrorismoaren tabuak ukitutako edozertan horrela dira gauzak, Guantanamo erakusten duen bezala: sekretu ofizialak, desinformazioa, ukatzeko ahalmena, eta abar, egunero kontuak dira.

Non eta nola erabakitzen dira hilketa horiek? Washingtonen, presidentea buru duen talde batek erabakitzen ditu; astero edo, segurtasun nazionaleko ehun bat kide biltzen dira bideokonferentziaz susmagarri diren ekintzaileei buruz eztabaidatzeko eta presidenteari zein hil behar duen hurrengo gomendatzeko. Izendatze sekretu horiek Etxe Zurira bidaltzen dituzte eta han, Brennan bezalako batek gidaturik, Obamak onartu

egiten ditu. Yemengo eta Somaliako erasoak edota Pakistango arriskutsuenak, esate baterako, Obamak sinatu behar ditu. Nor hil erabakitzeke eztabaidak gogorrak izaten omen dira; galdera artean, parte hartzaile batek honako hau galdegin ei zuen: "nor da Al Kaedako laguntzaile? Nik ate bat irekitzen badut eta zu atean zehar igarotzen bazara, laguntzailea al naiz ni?". Edo gizon batzuk kamioi bat ongarriz betetzen ari badira, bonbak egiten ala laborantza lanetan ari dira? Obamaren gobernu taldeko buru zen Bill Daleyk esan zuen bezala: "Presidenteak onartzen du zenbait hutsegite gertatuko direla" (Becker eta Shane, 2012: A10). Haren inguruko pertsonak harriturik omen daude bere buruarengan duen "izugarritzko konfiantzarekin"; Pakistango haren enbaxadore Cameron P. Munsterrek zioen bezala, Obama "ez zen konturatu bere lanik funtsezkoena jendea hiltzea zela" (Becker eta Shane, 2012: A10).

Iraganeko sekretismoak estali egiten zuten horrelako lan zikinak; orain, berriz, ingurukoek beraiek zabaltzen dute informazio hori, presidentea bera dela "gerrazaleen burua" adierazteko, gogorren irudia erabiliz, horrek hauteskundeak irabazten lagun diezaion. Lehen, Estatu Batuak kanpoko banakoen aurka eraso hilgarriak egiten saiatzen zirenean, eskandalua sortzen zen komunikabideetan eta publiko zabalean. Gaur egun, izenik gabeko atzerritarrak terrorismoaren aitzakiaz hiltzea lidergo sendoaren seinale bihurtu da, bai eta hauteskundeak irabazteko arma ere.

Nola liteke Guantanamo eta droneen bidezko hilketak, ohiz kanpoko neurriak izan arren (1970eko hamarkadan CIAk aurrez egindako ekintza kriminalen ondoren ezarritako legeen aurka daude eta ez dute beste nazioen subiranotasuna kontuan hartzen),

Estatu Batuarrek hain gogoko izatea? % 60k baino gehiagok onartzen ditu droneen era-soak (beste inongo naziotan ez dago aldeko gehiengorik). Dagoeneko ondo ezaguna da injustizia handi baten biktima izan zirela Guantanamo eramandako “terrorista” gehienak, baina hala ere amerikarren % 70ek ez dio ezer okerrrik ikusten kartzelak bere horretan jarraitzeari. Itsukeria hori terrorismoaren inguruko fantasiaren indarragatik bakarrik uler liteke. Era berean, epailearen agindurik gabe egindako hilketak izan arren, eta nahiz eta Estatu Batuekin gerran ez dauden nazioetako biztanleak izan, ekin-tza horiek ez dira bidezko epaiketa baten burla hutsa, non gobernuak aldi berean epaile, epaimahai eta borrero den, baizik eta presidenteari ospea ematen dioten beharrezko neurriak.

Nola esplika daiteke presidenteak hauteskunde garaian Guantanamo ixteko emandako hitza ezin betetzea, eta atxiloketa mugagabeak, torturak, epaiketarik gabeko hilketak dakartzan salbuespen egoerari eustea? Agambenen deskribapenean, egoera horretan “ezinezkoa da legearen haustea eta betetzea bereiztea, beraz araua urratzen duena eta araura egokitzen dena bat datoz inolako geldikinik gabe” (1998: 57). Droneak justifikatzeko orduan, Obama nola dagoen hain ziur galdetuz gero, antropologoei hain ezaguna zaigun Frazerren erregearen figura datorkigu burura; alegia, aldi berean “apaiza eta hiltzailea” dena (Frazer, 1963: 1), hilketa sakrifizio erritual bihurtzen denean, gizarte modernoetan hilketa beharkizun militar bihurtu den bezala. Beraz, ez da harritzekoa Obamaren “gidaria” den Brennan, zein hil behar dituen esaten aritu zaiona eta Bushen administrazio garaiko torturak zirela eta kritika gogorrak jaso zituena, “benetako zuzentasun morala” duen pertsona izatea bere ingurukoentzat eta “balio mo-

ral guztiz sendoak dituen apaiz antzeko bat balitz moduan” deskribatua izatea (Harold Kohk aipatua, Becker eta Shane, 2012: A10). Era berean, hilketa-programan izandako parte hartzea zehazten hasi aurretik, kazetariak esaten digute Obama “Agustinek eta Tomas Akinokoak gerrari buruz idatzitako enkasle” dela (Becker eta Shane, 2012: A11) eta hilketen ardura morala bere gain hartu beharra duela. Apaizaren boterea, politikoa ez bezala, goiko deiarren karisman eta sekretuan datza eta ez du norberaren kontzientziari ez den beste inori makurtzeko beharrik. Obama presidentea “biztanle amerikar baten hilketa gidatua, Estatu Batuekin gerran ez dagoen nazio batean, sekretupean eta epaiketaren babesik gabe” agintzeko legitimatua sentitu da (Becker eta Shane, 2012: A12). Laburrean, droneen bidezko hilketa-programa osoa, biztanle estatubatuar bat epaiketarik gabe hiltzeko berebiziko boterea barne, “presidentearen legitimitate pertsonalaren” karisman datza (Becker eta Shane, 2012: A12). Hala ere, hori guztia goi printzipio moralei jarraituz egiten den “gerra zuzen” gisa azaltzen da, eta ez terroristaren figura mamua erabiliaz egindako hilketa gisa. Beraz, apaizaren antzeko figura ote dugu Obama edo, Mitt Romney bere aurkari errepublikanoak deitu zion bezala (nahiz eta hura ere droneen alde egon, jakina), Stanley Kubricken *Doctor Strangelove* moduko bat, edo biak batera?

Fantasiaren Indarra eta Errealia

“Gorpuak zenbatzen dituzte eta ez daude ziur nor diren”, aitortu zien CIAko kide batek kazetariari (Becker and Shane, 2012: A11). Hala ere, presidentea “oso eroso dago indarraren erabilerarekin”. Nola daki berak terroristak direla edo izan daitezkeela? Funtsean fanta-

siaren bidez. Ezin denez ziur jakin militanteak ote diren, nahikotzat jotzen da *portaera ereduaren* informazioa beren intentzio terroristak ezagutzeko. Izen ezezaguneko pertsona horiek hiltzeko baimena eta publikoaren onarpena zein erraz lor dezaketen azaltzerakoan, *terroristaren* figuraren inguruko fantasia osagarri nagusi bihurtzen da.

Terrorismoaren diskurtsoaren ikuspegi kritikoak Gauza bera zein ote den galdetzen du lehenik. Kontraterroismoaren kostuak kontuan hartuz gero, terroristaren figurak sortzen duen mehatxua Sobiet Batasunak gerra hotzean sortzen zuena baino larriagoa da, dagoeneko hiruzpalau (amerikar) trilioi dolar gastatu baitira. Ikuspegi kritiko baten zeregina *erreal* hori nahitaez fantasian murgilduta dagoela azaltzea da. Horrek hasieratik teoria baliagarri bat edukitzea eskatzen du, zeinean fantasia ez den *ez-errealaren* parekoa, baizik eta, aitzitik, "*errealaren dimentsio bat oinarritzen duen*" (Butler, 1990: 108). Fantasiaren teoria hori komunikabideek bultzatzen duten irudikapenen errealtasitik aparte dago; erreportaje mediatiko horietan ez da aintzat hartzen zenbateraino jasotzen eta ekoizten den informazioa Salbuespen Egoera batean (zentsura, alde bateko iturriak, torturapeko informazioa, eta abar). Errealismo horretan, "errepresentazioa erreala berrekoizteko eta kontsolidatzeko une bat da" (Butler, 1990: 106). Errealaren ikuspegi positibista batean absentsia oro erreal ez denaren fantasmagoria baztertuta da. Terrorismo delakoa mamuzko fantasmagoria ukatu bat da, sistemak salbuespen gisa barnerraten duena, eta politikoki erreala den guztia eraikitzea eta bermatzea du zeregin nagusia. Errealari forma ematen diona terrorismoaren mamua izanik, salbuespenezko fantasmagoria horrek irudikatzen ditu errealaren mugarriak eta "errealaren estatusa hartzen du

beretzat, biak indarrez nahasten direnean" (Butler, 1990: 107). Horrela, fantasia errealtasaren maskara jantzita agertzen zaigu. Laura Naderrek dioen bezala, kontraterroismoa bere forma ugarietan "terrorea akabatzeke nahiaren izenean terrorea beharrezko duen fantasia gisa agertzen da, eta, hala, terrorea ezabatzea terrorearen apoteosia bihurtzen da benetan" (2012: 113).

Ez da harrizkoa gaur eguneko droneen gerra "fantasia hutsa" moduan deskribatu izana, "edo are, literalki, zientzia-fikzio gisa" (Sluka, 2011: 72). Izan ere, esparru horretan lanean ari den edonork onartzen duen bezala, zientzia-fikzioa da droneen teknologiararen atzean dagoen inspirazio nagusia. Etxe Zuritik eta Lurraldeko Segurantzaren Departamentutik hurbil dagoen Arlan Andrews idazlearen hitzetan "zientzia-fikzioa irakurtzen ez baduzu, ez zaude etorkizunaz hitz egiteko kualifikatua" (Singer, 2009: 160). Politikoak erraz liluratzen dira berrikuntza teknologikoekin eta espazioko operazioekin. Fantasiak parte hartzen du gerra birtualak "kirurgiako bisturiak bezala eta ez ezpata odoltsuak bezala" eraso lezakeela amestean, idatzi zuen Michael Ignatiefek, eta honako hau erantsi zuen: "Horrelako norberaren atsegineko zaurtezintasunaren ipuinetik urruti egon behar dugu" (2000: 214-215). "Ipuin" horiek dira gaur egun kultura nagusia, jende arruntak ez ezik, klase politikoak eta komunikabideek ere gogoz sinetsitakoa.

Zientzia-fikzioak fikzio huts moduan aurkezten duena, *errealitatearen* zati egiten du robotikak. Fikzio zena errealtate bihurtzen denean, *magiaren* zentzua lortzen da, sarritan entzuten den hitzarena. Droneak sarritan *bideo-jokoekin* konparatzen dira. Izan ere, roboten kontrol mahaiak PlayStationen erara egiten ari dira ikertzaileak, droneak erabiliko dituzten hemezortzi eta hemeretzi

urteko gazteak horrekin jolasean ibili direlako betidanik. Egiazko gerra bideo-jokoan jarraipen gisa ikusten bada, *jolasaren* eta *gerraren* artean esperientzian oinarrituriko lotura sortzen da, eta birtuala eta erreala nahasten dira.

Fantasia Estetizatua eta Gorputzik Gabeko Gerra

"Gerra ederra da", idatzi zuten hogeigarren mende hasierako Futuristek beren manifestuan, "gizakiaren nagusitasuna makineria menderatuaren gainetik ezartzen baitu... Gerra ederra da arkitektura berri baten formak sortzen dituelako tanke handiekin, geometriazko mugimendu formazioekin, sutan dauden herrietako kearen kiribilekin..." (aipatua, Benjamin, 1968: 241). Gernika bonbardatu zuten hegazkin nazien buru zenak, Wolfram von Richthofenek, bere egunkarian idatzi zuen nola "bonbardaketaren ondorio miragarriak" ikusi zituen (aipatua, Maier, 1976: 103-104). Era berean Truman presidentek, Hiroshimako bonbaren ondorioak ikustean, honako hau oihukatu zuen estasiak hartuta: "historiako gauzarik handiena da hau!", eta hiru egun geroago Nagasaki gainean beste bat botatzeko agindu zuen. Mirari teknologikoen tradizio horretan daude urrutitik kontrolaturiko piloturik gabeko droneak.

Futurista italiarren manifestua aipatuaz, Benjaminek "politikaren estetizazioaz" idatzi zuen eta ondorio garbia atera zuen: "Politika gauza estetiko bihurtzeko ahalegin guztiek gauza bakarrean amaitzen dute: gerran" (1968: 241). Eta erantsi zuen: "Estetika bizitza politikoan sartzea faxismoaren ondorio logikoa da", eta horren eslogana honako hau da: *Fiat ars-pereat mundus* (egin

bedi artea, suntsi bedi mundua). Munduaren hondamendiaz arduratu gabe artea sortzea, horixe da *l'art pour l'art*, estetaren perfekzio goren, eta bere ikusminik handiena zera da: gerrak "teknologiaz aldatutako zentzumenerpertzepzioaren gozamen artistikoa" ekarriko duela. Politikaren estetizazioaren azken ondorioa, Benjaminentzat, honetan datza: gizadiaren "auto-alienazioa halako mailara iritsi da, non gai baita bere auto-suntsipena mailarik goreneko gozamen estetiko modura esperimintatzeko" (Benjamin, 1968: 242). Buck-Morssen iruzkinean, "Benjamin esaten ari dena da zentzumener alienazioan datzala politikaren estetizazioaren iturria, eta alienazio hori faxismoak ez duela sortzen, kudeatzen baizik" (Buck-Morss, 1992: 4). Hemen dagokigun galdera honako hau da: posible al da gaur egungo kontraterrorismoa antzeko zentzumener-alienaziorik eta politika estetizaturik gabe, geure munduaren suntsiduraren ikuspegia gozatzen amai dezakegula barne izanik?

"Xoka eta Txundimena" izenez bataiatu zuen Estatu Batuetako armadak 2003ko martxoaren 19an Iraken aurka hasi zuen eraso masiboa. Bagdaden lurrean zeuden biztanleentzat zer izan ote zen apenas imajina genezakeen, baina telebista ikusten geundenontzat *txundigarria* izan zen. *New York Times*/CBSen inkestaren arabera, % 62 ados zegoen erasoarekin nahiz eta soilik % 8k uste izan inbasioak beste ekintza terrorista baten aukera murrizten zuela. Hortaz, zer dela eta onartu zuen jende gehienak, % 53k, Xoka eta Txundimena kanpaina, gauzak hobetuko ez zituela uste izan arren? Segur aski telebistaren gertakizunen estetizazioarekin zerikusia izan zuen horrek. Gerra espektakulu gisa hautematen zen, dokudrama moduan, telebistako primetimeko gertakari bat balitz bezala; laburbilduz, *arte* gisa.

Estetizazio teknologiko horren azken produktua droneak dira. Zeruan, hiru mila metrora, etsaiaren tirabidetik urruntze aha-legendetan pauso bat gehiago ematen dute. Etsaia ez da jada egiazko gorputz bat gudari erasotzaileentzat, irudi huts bat baizik. Begiak ez ditu jada ikusten erasoaren ondorio izugarriak, baizik eta jotako helburuaren zehaztasuna bakarrik: operazioaren geometria, jomuga iristearen eta suntsitzearen gauzate ederra. Estetika beharrezkoa da pertzepzioa mugatua eta bideratua izan dadin, telebistako programatzaileek nahi dutena eta ez besterik ikus dadin gertakariaz.

Droneen industria zientzia-fikzioarekin elkartasun estuan garatu da Las Vegas ondoan, Nevadako basamortuko "Area 51" bezalako leku sekretuetan. Industria horren estetizazioaz zalantzarik balego, Area 51 hirurogei film, telebista show, eta bideo-joko baino gehiagoren eszenatokia izan da (Singer, 2009: 138). Zientzia fikzioa besterik ematen ez duen telebista kate bat ere bada-go. Saltzen diren ehun liburutik hamarrek zientzia-fikzioa eta fantasia dute gai; gehitu horiei "tekno-suspentsea" idazten duten autore ezagunak. Zinematografiaren industrian *Izarretako Gerrak* izan zen mota horretako lehen film arrakastatsua; hamar filmik ikusienetatik sei zientzia-fikziozkoak dira; era berean, telebistako saio ezagunen ar-tean asko izan dira zientzia-fikziozkoak.

Benjaminen arteari eskatzen ziona gorputzaren alienazioa *desegitea* zen, "giza zentzumen gorpuzkoen senetzko indarra indarberritzea gizadiaren auto-begiratzearen bidez, eta hori egitea, ez teknologia berriak baztertuz, horietan barneratuz baizik (Buck-Morss, 1992: 5). Giza zentzumenak berreskuratzea, horixe da kontraterrorismoaren tabu-bihurtze estrategiak nahitaez eragotziko duena: harentzat terrorista ez da inolaz

ere entzun edo ikusi behar, eta haren arrazoi politiko edo moralak "ulertzeko" edozein ahalegin, nolabait, "justifikazio" bat da jada, eta haren asmoen aurrean amore ematea. Idazleak bere burua subjektibotasun terroristaren baitan jartzea munstroaren apologia egitea da dagoeneko. Terrorismoaren etnografia anathema bat da, ezin baita inolako harremanik izan terroristekin; debekaturik dago informatzaileen bizitzan parte-hartzea, euren gorputzak eta eguneroko harremanak bertatik bertara ezagutzea. Truman Capoteri, zeinak harremanak izan baitzituen serieko hiltzaileekin, ez zitzaion inoiz utziko terroristekin harremanik edukitzen. Laburbilduz, kontraterrorismoak industria berri bat sortu du, milaka gobernu, erakunde eta konpainia pribatuz osatua, eta industria horretan zortziehun mila pertsonatik gora ari dira ehizan (Priest eta Arkin, 2011), inoiz aurkituko, ikusiko edo entzungo ez dituzten subjektuak ikertu eta harrapatu nahian. Hitz batean, ez ezazu hondatu tabu bihurtutako terroristarekiko zure fantasia-harreman biribil hori Munstro beldurgarri/desiraturarekin harreman egiazko bat edukiz.

Robotek, euren saltzaileek esaten digutenez, "abantaila gutxietsi" bat dute; hain zuzen ere, "ez daramate eurengan gure 'giza bagaje' zoragarria" (Singer, 2009: 65). Droneek ez dute biharamunik edo amodiozko desengainurik; ez dute beren buruaz beste egiten. Terroristek, aldiz, pisu handiko "giza bagajea" daramate; maiteminduta dagoen gizon baten itsumena dute, fanatikoaren zorakeria, suizidaren eromena. Esan dezakegu Robespierretik Bin Ladenera, gizadia bera dagoela pentsaera eta ekintza terrorista oker ororen iturrian. Sarriegitan, terrorista direlakoek beren giza gorputzen zamatik libratzeko aurki dezaketen irtenbide bakarra –politikaren eta etikaren arteko paradoxe-

tan, amodioaren eta gorrotoaren arteko konponezineko *impasse*etan harrapatu-beren burua eta besteak hiltzea izan da.

Denbora eta Fantasia

“Denbora” da zientzia-fikzioaren –non ez dagoen denbora errearen beharrik– eta gertatutako errealitatearen arteko diferentzia. Pentsaera kontraterroristak harreman berezia du denborazkotasunarekin. Mehatxuak, adibidez, terrorismoaren funtsezko esparrua, itxarotearen denboran oinarritzen dira; denbora historikoa beldur den etorkizunari makurtzen zaio. Iragarpenak oso bereak ditu kontraterrorismoak: behin eta berriro esaten digu erasoak gertatuko direla, zalan-tzarik gabe; noiz gertatuko diren, horixe da ez dakigun gauza bakarra. Gero, erasorik gertatzen ez bada, bere iragarpenak ekintzari aurrea hartu ziola esan lezake kontraterroristak; erasoak gertatzen badira, “esan nizuen nik” erants lezake. Une horretan, terrorismo iragarria profetia betea suertatzen da. Beti zuzen egote horrek mitologiara hurbiltzen gaitu, denbora historikoa ukaezin den etorkizunaren patura makurtzen denekora.

Aurre egin ezin diegun gertakizunen denborazkotasun pasibo horrek fatalismoaren pentsamoldea sortzen du, zeinean terrore gertakizunak naturatik hurbilago baitaude gizartetik eta politikatik baino, eta ez du jada merezi militantearen aurreiritzi intelektualak edo motibazio subjektiboak aztertzea. Irailaren 11ko suiziden arrakasta politiko galanta horixe izan da, hain zuzen ere: beren itxoite suizidaren denbora eta sekretupeko orakulu-inteligentzian oinarrituriko kultura inposatu diotela Estatu Batuen politikari; horrek edozer justifikatzen du gero Terrorearen aurkako Gerran.

“Bere hitzak betetzen dituen iragarpena honako hau da hasiera batean”, idatzi zuen Robert Merton soziologoak: “egoera baten definizio okerrak portaera berri bati auke- ra ematen dio, eta portaera horrek hasie- rako nozio faltsua egia bihurtzen du gerora. Bere hitzak betetzen dituen iragarpenaren sasi-baliagarritasun horrek errakuntzaren erresuma luzatzen du. Zeren iragarleak egu- neroko gertakizunen zerrenda aipatu-ko du hasieratik zuzen zegoela frogatzeko... Ho- rrelakoxeak dira gizarte logikaren perber- tsioak” (Merton, 1968: 477). Faltsua zen Iraken Al Qaeda zegoela inbasioaren aurretik baina egia bihurtu zen inbasioaren ondoren. Islamista antiamerikarrek ezingo zuten inoiz hegazkinen aurkako misilik izan, 1980ko hamarkadan CIAk errebelde afganiarrei so- bieten aurkako Stinger misilak eman izan ez balizkie. Era berean, berrogei naziotik gora ari dira gaur egun droneen teknologia garatzen, robot militar gisa erabiltzeko; eta aurrerantzean askotariko militanteen esku- tara irits litezke. Kontraterroristen droneak laster terroristek erabiliko dituztela jada ai- patzen den iragarpena da: “ez dago urruti” (Caryl, 2011: 58).

Beste horrenbeste esan daiteke *ziberterrorismoaz*, AEBk eta Israelek garatutako *Stuxnet* delako har informatikoaren kasuak adie- razten duen bezala; Iran erasotzeko egin zu- ten software gaiztoa, baina gero Interneten zehar zabaldu zen. Ziberterroristen aurkako alarma guztiak jotzen aritu ondoren, mun- du osoak ikusi ahal izan zuen Obamaren administrazioa bera ari zela horretantxe. Ondorioz, “orain Stuxnet kanpoan dagoela [...] badago jarraitzeko eredu bat” (Ralph Langner aipatua, Sanger, 2012: 209). Hala ere, “Obamak ez du jendaurrean onartu ere egin ahalmen hori badenik” (Sanger, 2012: 265), hain kezkatu-rik dago onartzeak beste

nazioei beste horrenbeste egiteko aitzakia emango diela. Arma nuklearrekin gertatzen den bezala, horiek edukitzea eta noizean behin erabiltzea ere bidezkoa da Mendebaldearentzat, baina arma horiek edukitzeko *besteen desioa* terrorismoa da, ordea.

Mehatxuak dira terrorismoaren alderdi nagusietako bat. Mehatxuak pertzepzioarekin eta interpretazioarekin jolasten du. Seinale mehatxagarriaren eta geroko gertakizunaren arteko lotura zein izango den alde aurretik ez dakigunez, fantasiak oinarritzko zeregina du bitartekaritza horretan. «Unabomber» gisa ezaguna izan zenak, Californiako hegazkin trafikoa gelditu zuen, egunkari batera mehatxu eskutitz bat bidaltze hutsarekin; aldi berean, beste eskutitz bat bidali zuen beste egunkari batera, dena «broma» bat zela zioena. Mehatxuaren «errealitatea» zuk ematen diozun erantzunaren araberakoa da. Kontraterrorismoa da Robert Mertonen teoremaren adibide seinalatua: "Behin pertsonak egoerak erreal gisa definitu ondoren, errealak dira beren ondorioetan" (1968: 475). Mehatxu bat serio hartuz gero, haren intentzioa eta posibilitatea ezezagunak izanik ere, mehatxuaren errealitateak erantzuna eskatzen du. Terrorismoaren esparruan, oro har, fantasiaren indarra dela medio, maila semantiko desberdineko hitzak eta ekintza erritualizatu eta militarizatuak nahasten dira.

Antropologoek aztertutako fenomenoaren artean dago iragarpena. Iragarpenak denboraren ardatza manipulatu du magiazko ondorioak nagusi diren testuinguru kulturean, eta adibide argia da ulertzeko zer neurritan osatzen duen fantasiak errealak. Antropologoek, halaber, kausalitateari eta denborari dagozkion modernitate aurreko nozio mistikoak eta gure arrazoizkotasun estandar modernoak konparatu dituzte. Kontraterrorismoaren ohiko iragarpena ho-

nako hau da: "ez da *baldin eta*, baizik eta *noiz*"; alegia, gertakari benetan terroristak, hala nola eraso nuklearrak, gertatuko direla ziurtzat jo behar da; jakiterik ez dagoen bakarra da noiz gertatuko diren. Hipotesiek balizko "ba-, baldin" dute premisa: "baldin A, orduan B". Azandeen sorginkeriararen parekoa den pentsamolde kontraterroristan, "ez da *baldin eta*" aurrebaldintzak baztertu egiten ditu hipotesi hutsak (Winch, 1977: 78-111). Beraz, iragarleen errebelazioak "bete gabeko hipotetikoak" dira, fantasiaren eta desioaren esparrukoak, eta denborarekin bete egingo direnak. Kontraterroristaren proiektioek iragarpenen segurtamena dute: nahitaez gertatuko da izugarrikeria. Horrek pentsamolde fatalista bultzatzen du ("gertatu behar dena gertatuko da"), eta, ondorioz, jakin dezakeguna gutxiestera eta hartutako erabakiengatik erantzukizunik ez hartzera eramaten gaitu.

Zain egotearen denborazkotasunaren ondorio praktiko bat, eraso etorririko dela zalantzarik ez dagoenean, zera da: gertatu aurretik neurri prebentiboak hartu behar direla. Pentsamolde hori dago disuasio nuklearraren atzetik ere: bihar erabili ezingo diren armak garatzen dira gaur, etsaia ezerezteak geure alderdia ezereztea ere baitakar. Askok ikusi zuten logika horretan teknologia-eromenaren funtsa. Baina hori ez zen aski izan. Kontuan harturik terroristek biharko egunean eraso nuklearrak egingo dituztela ziur, guri orain gerra prebentiboa egitea tokatzen zaigu, egoera nuklear batean bizi garen arren. "Ez da *baldin eta*, baizik eta *noiz*" formula, apokalipsiaren iragarpena da aro nuklearrean. Pentsamendu kontraterroristak agindu bihurtzen du gerra gaur bertan hasteko beharra: Saddam Husseinen aurka, Iranen aurka edo terrorista izan daitekeen edonoren aurka. Premisa horrengatik onartu

zuten estatubatuarrek, komunikabide libe-
ralek barne, Iraki gerra deklaratzeko.

Ikusteko kontraterrorismoak sortutako
robot-teknologiek zer nolako gaitasuna du-
ten terrore gehiago sorrarazteko, begira
diezaiogun irailaren 11ren aurretiko eraso
terrorista ezagunenari: Eskoziako Lockerbie
gainean 1988ko abenduan Pan Am 103 he-
gazkina lurrera bota eta 270 bidaiari hil zi-
tuen. Jendeak ahazten duena zera da: urte
bereko uztailean Estatu Batuetako *Vincennes*
gerraontziak hegazkin irandar bat bota zuela
Pertsiaiko golkoan, 290 bidaiari hil zirela, eta
gerraontziak Aegis radar sistema zerabilelako
gertatu zela hura; radar sistemak markatu
zuen “ustezko etsaia”. Hegazkin irandarra ra-
dar eta irrati seinale zibilak emititzen ari zen,
baina Aegis sistema automatizatua Sobiet
gerra hegazkinen aurka zegoen programa-
tua eta, beraz, haren konputagailuaren pan-
tailan hegazkina Iraneko gerrako F-14 bat
zela agertu zen. Estatubatuarren behaketaren
arabera ebidentzia guztiek zioten ez zela ge-
rra hegazkina, baina konputagailuak baietz
esaten zien. Eta nork jar zezakeen zalantzan
Aegisen robot ezagutza? *Vincennes* gerraon-
tzia robotez gidatutakoa zenez, tripulazioak
goikoen inolako baimenik gabe tiro egiteko
eskumena zuen. Labor esanda, “konputa-
gailua ontziko kapitainaren judizio indepen-
dentea baino fidagarriagoa zen tiro egin ala
ez erabakitzerakoan” (Singer, 2009: 125).
Bost hilabete geroago gertatu zen Pan Am
103 hegazkinaren aurkako eraso, zenbait
adituk mendeku eta “odol borroka” gisa iku-
si zutena (Weinberg eta Eubank, 1993: 32).
Kontraterrorismoak bere burua sorrarazteko
duen logika zirkularra adierazten du horrek.

Eta zein dira droneen kanpainaren on-
dorioak? Pakistanen eraso terroristek na-
barmen egin dute gora, antiamerikanismo
olatuak harrapatuta, izan ere pakistandarrek

“ia erabat sinesten dute [droneen] erasoetan
hiltzen diren gehienak zibilak direla” (Caryl,
2011: 56). Lotura horren adibide bat da Fai-
sal Shahzad, New Yorkeko Times Squaren
2010eko maiatzean huts egindako erasoaren
egile pakistandar-amerikarra; bere epaike-
tan esan zuenez, “droneek hiltzen dituzten
emakume, haur... guztien mendekua izan
da nirea... Ni erantzunaren parte bat naiz”
(aipatua, Hari, 2010).

Zer gertatzen zaio denboraren ardatza-
ri robot-teknologiaren asmoetan? Robotek
hain azkar erreakzionatu beharko dute, dios-
ku armadako koronel batek, ezen minutue-
tatik mikrosegundoetara laburtuko baitira
erabaki-zikloak, eta denbora “tartea labur-
rago eta laburrago gertatzen ari denez, ez
da geldituko inolako denborarik gizakien-
tzat” (aipatua, Singer, 2009: 64). Robotak
armadan erabiltzean, arazo erabakigarri bat
seinalatu izan da: borrokan nork hartuko
ditu azken erabakiak, gizakiak ala robotak?
Roboten *autonomia* da arazoa, hau da, gizo-
na azken erabakiaren unean egongo den ala
ez; eztabaidatzea ere eragotzia dagoen ara-
zoa omen da (Singer, 2009: 123). Gizakiak
erabakian parte hartu beharra da, batzuen
iritzian, nahitaezko azken muga. Baina di-
seinatzaileek robotei gero eta autonomia ge-
hiago ematea dute helburu, zeren eta “badira
borroka egoerak zeinetan ez baitago denbo-
rarik giza operadore batek erreakzionatzeko”
(Singer, 2009: 127). Robot pilotu batek se-
gundo baten milioiren bat behar du erantzut-
eko eta giza pilotu batek segundoak behar
ditu ahalbide desberdinen artean aukeratze-
ko. Zenbait goi karguren arabera, teknolo-
gia berriek “agudo garamatzate joan nahi ez
genukeen baina ziur asko saihest ezin izango
dugun tokira” (Singer, 2009: 128). Estatu-
batuar armada-agintearen 2005eko errepor-
taje batek honako izenburu hau zeraman:

“Ondorio Pilotugabeak: Gizakia Gunetik Kanpo Jartzen”. Aditzera ematen zuten, horrela, urte gutxi barru ohikoak izango direla piloturik gabeko robotak. Singerren azken ondorioa garbia da: “Robot armatu autonomoak gerrara iristen ari dira. Horrek zentzu handia du inporta duen jendearentzat” (2009: 128). Plangintza-egile militarren artean behin eta berriro aipatu bada ere robotei azken erabakirik ez uzteko nahia, *salbuespen* bat onartzen da: kanpoko komunikazioa moztuta egotea eta robotak “itsu aritzea borrokan”. Kontuan hartzen badugu droneen teknologia terrorismoaren *Salbuespen Egoeran* garatzen ari dela, robotek “itsuan” inon borrokatzekotan, hori kontraterrorismoan izango da; inon ez zaio dronari errazago utziko erabakiak autonomoki hartzen, terroristaren aurka ari denean baino.

Denborazkotasunari droneekin zer gertatzen zaion laburbilduz, ez da jada terrorearen zain egoteak dakarren denboraren perbertsioa; orain giza denboraren ezabatze hutsa du helburu teknologiak. Fantasia perfektua izango da, zeren gizakiok geure gertetatik kanpo geratu ahal izango gara. Kontua ez da soilik ez garela hilko gure gerretan, baizik eta, denbora robotaren automatizazio bihurturik, erabaki zailik ere ez dugula hartu beharko eta ez dugula horien ondorioen zamarik gainean eramango. Beraz, roboten munduan erabaki-zikloak mini-segundotakoak izango dira, baina ez hori bakarrik: ikuspegi futurista horietan denbora erreala fikzioaren kategoriara makurtuko da.

Fantasia Zeharkatzen

Nola liteke presidente bihurtu zen konstituzio zuzenbideko irakaslea hain lasai egotea droneen hilketa programarekin? Erantzuna-

ren zati bat hilketen inguruabarrean dagoen lege-diferentzia batetik atera daiteke: odol hotzean aurrez aurre norbait hiltzeak lege arazoak dakartza, baina dronearen distantzia teknologikotik hiltzea erabat legezkoa da (Priest eta Arkin: 211). Era berean, Obamaren doktrinaren droneetatik misilak botatzea *eraso (strike)* hitzarekin izendatzen da, eta ez *hilketa* kontzeptuarekin; irandar zientifikoek hilketak izendatzean gertatzen den bezala, bestalde: “Zer-nolatan da bat ‘hilketa’... eta bestea ‘matxinatuen eraso’?” (Sanger, 2012: 245). Hilketa “legezkoa” izateko eta “normal”tzat jotzeko beharrezkoa den distantzia eskaintzen dute droneek, bai fisikoa bai linguistikoa: teknologiaz bitartekatua, estetizatua, robotikaz subjektugabe bihurtua.

80ko hamarkadan zenbait gobernu europarrek iskanbila sortu zuten ustezko zenbait terrorista harrapatu beharrean tiro egin eta akabatu egin zituztelako (Zulaika eta Douglass, 1996: 158-159). Obamaren administrazioak, dirudienez, bere hilketak beste kategoria bati dagozkiola uste du. Hilketak pilotugabeko droneei agintzeak, roboten autonomia eta distantzia estetikutik, horrek eman behar dio lasaitasuna Obamari bere erasoak legezkoak eta moralak direla sinesteko, terroristaren inguruko gertakizunak eta fantasiak bitarteko direla. Egoera horretan ez da jada gizon bat beste gizon baten aurka; subjektugabeko hegazkinak dira, “harrapari”, “zapelatz”, “bele” eta antzeko ehiza izenak dituztenak, hor behean dauden helburu terrorista susmagarri eta fantaseatuen atzetik erasoan dihardutenak.

Baina fantasia ez du soilik errealitatea funtsatzen; bere gehiegizko semantikan, fantasia sortzaileak ahalmena du, halaber, errealaren usteak galdekatzeko eta zalantzan jartzeko. Fantasiaren subjektuak identifikazio ugari egin litzake, eta, horrela, kolokan

jartzen da zein den bere azkenengo nortasuna. Fantasiaren inguruko erabateko anbiguotasunak berekin dakar, alde batetik, izaera egonkortzailea, inolako arazorik gabeko egoeraren ametsa, baina, bestetik, infernua ere sor lezake, auzokoaren gaiztakeriak imajinatuz (Zizek, 2012: 685). Totalitarismoaren irakaspena fantasiaren aurpegi bikoitz hori da: nazien komunitate harmoniaz beteak juduaren mamua behar zuen; Stalinen "gizon sozialista berriak" etsaiak ikusten zituen bazter guztietan. Gerra hotzaren akaberan, amerikar hegemoniak munduaren "ordena berria" imajinatu zuen, baina horretarako *terroristaren* mamua agertzea behar zuen, osagarri gisa. Lehen fantasiak bigarren fantasia nahitaezko du.

Fantasiari buruz Lacanek duen tesiaz ari gara hemen; hau da, ametsaren eta errealtatearen arteko oposizioan, fantasia errealtatearen alderdian dago. Fantasia da lacandarrontzat traumaren gunea onartzeko modua. Fantasia da errealtate deitzen diogunari oinarria ematen dion sostengua (Zizek, 1989: 44). Horrek ez du esan nahi errealtatea irudipen bat denik edo bizitza amets bat denik. Fantasiaren gertalekuan desira ase ez ezik, gauzatu ere egiten da: "fantasiaren bidez ikasten dugu 'nola desiratu'" (Zizek, 1989: 118). Nola gertatzen da objektu edo pertsona bat gure desiraren helburu bihurtzea, "beregana dagoena baino gehiago" den zerbait horrek, haren tasun ezezagun estra horrek, gure desiraren merezimendua irabazteraino? "Fantasiaren esparruan sartuaz, subjektuaren desirari sendotasuna ematen dion fantasiaren eszenatokian parte hartuaz" (Zizek, 1989: 119). Eta zer da terroristaren tabu-figura, "tasun ezezagun" hori duen in-

dibidua baizik, halako beldur eta desira bortitza eragiten dituen, eta bera dena baino gehiago beragan duena? Halako apokaliptosi botere bat du, fantasiaren barrutirako giltza berarekin baitu.

"Gu inperio bat gara orain, eta zerbait egiten dugunean, guk geuk sortzen dugu geure errealtatea", aitortu zuen George W. Bush presidentearen kontseilari hurbileko batek, kazetariei burla eginez haien egiteko bakarra komentarioak egitea zela eta, jadanik egina zegoen "errealtatean oinarrituriko komunitatean" bizi baitziren (Rich, 2006: 4). "Errealtate" horren bihotzean Terrorrearen aurkako Gerra zegoen eta dago: aldizkako errealtatea, ezezaguna baina biziki fantaseatua den Terroristaren figuran oinarritua.

Psikoanalisiaren azken helburua subjektua fantasiaren xarmatik esnatzea da. *Fantasia zeharkatzea*, da Lacanen esaldia. Ez da soilik gure fantasiei interpretazio sinbolikoa ematea, baizik eta "esperimentatzea ezen fantasiaren objektuak, bere presentzia liluragarriarekin, hutsune bat bete besterik ez duela egiten: Bestearengan dagoen hutsunea. Ez dago ezer fantasiaren *atzetik*; fantasia eraikuntza bat da, eta haren egitekoa hutsune hori ezkutatzea da, 'ezer ez' horixe ezkutatzea, alegia" (Zizek, 1989: 133). Nola zeharkatu behar den fantasia: horixe da, beraz, arazoa. Fantasia zeharkatzeak ez du esan nahi errealtatea den bezala aurrez aurre onartzea, baizik eta fantaseatutako figura horrek barnean daramatzan funsgabetasunak ikustea. Horrela, fantasiaren agertoki horretatik gutxieneko distantzia bat nola lortu da arazoa; nola deslotu desira eta gozamena terrorista direlakoak ehizatzetik, hori bihurtzen da funtsezko zeregin politiko.

Bibliografia

- AHMAD, Muhammad Idrees (2011) "The Magical Count of Body Counts" in *Al Jazeera*, 2011ko ekainak 13.
- AGAMBEN, Giorgio (1998) *Homo Sacer: Sovereign Power and Bare Life*, Stanford, Stanford University Press.
- BAKER, Nicholson, (2012) "Book Review", in *New York Times*, 2012 irailak 16.
- BECKER, Jo; SCOTT, Shane (2012) "Secret 'Kill List' a Test of Obama's Principles and Will". *New York Times*, maiatzak 29, A1, A10-12.
- BENJAMIN, Walter (1968) *Illuminations*, New York, Schocken Books.
- BUCK-MORSS, Susan, (1992) "Aesthetics and Anaesthetics: Walter Benjamin's Artwork Essay Reconsidered," *October* 62: 3-41.
- BUTLER, Judith (1990) "The Force of Fantasy: Feminism, Mapplethorpe, and Discursive Excess", *Difference: A Journal of Feminist Cultural Studies*, 2 (2): 105-125.
- CARYL, Christian (2011) "Predators and Robots at War", *The New York Review of Books*, irailak 29:55-57.
- FRAZER, James (1963) *The Golden Bough: A Study in Magic and Religion*, New York, Macmillan.
- HARI, Johann (2010) "Obama's Escalating Robot War in Pakistan is Making a Terror Attack More Likely", *The Huffington Post*, urriak 15.
- IGNATIEFF, Michael (2000) *Virtual War: Kosovo and Beyond*, Washington DC, Cato Institute.
- KILCULLEN, David (2009) *The Accidental Guerrilla: Fighting Small Wars in the Midst of a Big One*, Oxford, Oxford University Press.
- MAIER, Klaus (1976) *Guernica: La intervención alemana en España y el "Caso Guernica"*, Madril, Sedmay Ediciones.
- MERTON, Robert K. (1968) *Social Theory and Social Structure*, New York, Free Press.
- NADER, Laura (2012) "Rethinking Salvation Mentality & Counterterrorism," *Transnational Law & Contemporary Problems*, 21. libk: XXX: 113 or.
- PRIEST, Dana; ARKIN, William M. (2011) *Top Secret America: The Rise of the New American Security State*, New York, Little, Brown and Company.
- RICH, Frank, 2006, *The Greatest Story Ever Sold: The Decline and Fall of Truth: From 9/11 to Katrina*, New York, The Penguin Press.
- SANGER, David E. (2012) *Confront and Conceal: Obama's Secret Wars and Surprising Use of American Power*, New York, Crown Publishers.
- SINGER, Peter W. (2009) *Wired for War: The Robotics Revolution and Conflict in the 21st Century*, New York, Penguin Book.
- SLUKA, Jeffrey A. (2011) "Death from Above: UAVs and Losing Hearts and Minds" *Military Review*, maiatza-ekaina. 70-76 orr.
- THE NATION (Editorial) [2012] "Obama's Kill List". ekainak 25: 3.
- WEINBERG, Leonard; EUNBANK, William (1993) "Political Terrorism and Political Development" in H. Han ed., *Terrorism and Political Violence: Limits & Possibilities of Legal Control*. New York: Oceania.
- WINCH, Peter (1977) "Understanding a Primitive Society", in R. Wilson, ed., *Rationality*, Oxford, Basil Blackwell, 78-111 orr.
- ZIZEK, Slavoj (1989) *The Sublime Object of Ideology*, Londres, Verso.
- (2005) *Interrogating the Real*, Londres, Continuum.
- (2012) *Less than Nothing: Hegel and the Shadow of Dialectical Materialism*, Londres, Verso.

ZULAIKA, Joseba; DOUGLASS, Williams A. (1996) *Terror and Taboo: The Follies, Fables, and Faces of Terrorism*, New York eta Londres, Routledge.

ZULAIKA, Joseba (2009) *Terrorism: The Self-Fulfilling Prophecy*, Chicago, Chicago University Press.

Palabras clave: contraterrorismo, drones, fantasía, estética, profecía auto-cumplida.

Resumen: Los drones son "el único juego que queda" en el contraterrorismo norteamericano. El artículo examina en qué medida los drones continúan la lógica de profecía auto-cumplida del contraterrorismo. Se estudia en concreto el papel de la fantasía en todo el fenómeno terrorista. Se considera la fantasía no como una mera ficción que se oponga a la realidad sino como aspecto constituyente de lo real. Se examinan las relaciones de la fantasía con el secretismo y la estética, y esta con el fascismo. La mayoría de los drones ejercen vigilancia desde una base militar cercana a Las Vegas, siendo estos alrededores (Area 51) un lugar histórico de la ciencia ficción, reforzando de esta forma las conexiones entre militarismo, contraterrorismo, ciencia ficción y fantasía. Se investigan también las relaciones de la fantasía con el deseo, el miedo y la temporalidad. ¿Qué supondría "atravesar la fantasía" (Lacan) en el campo del contraterrorismo?

Keywords: counterterrorism, drones, fantasy, aesthetics, self-fulfilling prophecy.

Abstract: In U.S. counterterrorism drones are currently considered "the only game in town." The paper studies the extent to which drones have become one more instance of terrorism's self-fulfilling prophecies. The relevance of fantasy is underlined--fantasy viewed as constitutive of the real, nor as mere fiction opposed to reality. The relationship between fantasy, secrecy, aestheticization, and fascism are examined. Drones are monitored for the most part from a military base near Las Vegas, whose surrounding (Area 51) have been historically at the center of science fiction, thus further linking militarism, counterterrorism, and fantasy. The paper also investigates the relationship between fantasy, desire, fear and time. What would it imply the Lacanian "traversing the fantasy" in the realm of counterterrorism?